

# Errioxa - Añana

Eskualdeetako bertso bilduma

2013-2014 ikasturtea

---

# AURKIBIDEA

## ERRIOXAKO IKASTETXEAK


- 3. orrialdea.....Lantziego ikastola – Lantziego – 5. /6.. maila
- 4. orrialdea.....Assa Ikastola – Lapuebla de Labarka – 5. maila
- 5. orrialdea.....Assa Ikastola – Lapuebla de Labarka – 6. maila
- 6. orrialdea.....San Bizente Ikastola – Oion – 5. maila
- 7. orrialdea.....San Bizente Ikastola – Oion – 6. maila
- 8. orrialdea.....Bastida Ikastola– Bastida – 5. maila
- 9. orrialdea.....Bastida Ikastola– Bastida – 6. maila

## AÑANAKO IKASTETXEAK

- 10. orrialdea.....Gobea Herri eskola – Gobea – 6. maila
- 11. orrialdea.....Unamunzaga eskola – Erribera Beitia – 6. maila
- 12. orrialdea.....Jose Migel Barandiaran ikastetxea – Langraitz – 6. A
- 13. orrialdea.....Jose Migel Barandiaran ikastetxea – Langraitz – 6. B

## BERTSO-ESKOLAK

- 14. orrialdea..... Kontaktuak



**Lantziego ikastola – Lantziego**  
5. eta 6. mailak

**EUSKARAREN EGUNA**  
**DOINUA: Pasaiaiko plazatik**

Euskararen eguna  
Karaoke\_abesten  
txikiei laguntzen  
jolasak egiten  
bideo bat ikusten  
ta baita entzuten  
ondo pasa genuen  
jolasak asmatzen

Euskararen eguna  
neska ezaguna  
etorri zen bisitan  
eta da laguna  
pozik jarri zen bera  
ez dugu problema  
soka tira jolasa  
bukatzeko\_eguna

Antonio Valverde  
gustukoa dugu  
Athletic ere bai  
irabazi\_helburu  
ta euskararen jaia  
abenduak hiru  
ospatzen dugu gaur  
guk erretzen puru

Abenduak hiruan  
eguna ospatu  
eta egun horretan  
orduka jolastu  
mendian jolasten gu  
ta txoriak kuku  
euskararen egunan  
guk ondo pasatu

Abenduak hiruan  
euskara ospatu  
eta egun horretan  
guk ondo pasatu  
Gainera\_egun horretan  
Betiko\_hontzak kuku  
euskararen egunan  
guk asko jolastu

Eskolan ikasten dut  
euskara ikasten  
pertsonekin hitz egin  
motorran kalean  
euskaraz ikasten ta  
euskaraz esaten  
euskaraz jolastu ta  
abestu genuen



**Assa ikastola – Lapuebla de Labarka**  
5. maila

**GIZON EROA,**  
**Doinua: Ai ZApotxin**

Ai Zapotxin  
ez dago zer egin  
gizon eroa eta Maiterekin

Bazen behin herri baten  
urtebetetze bat  
Assako ikasleak  
parrandazaleak

Josunen urte berri  
patioan ospatzen  
ta gizon bat ikusi  
ikastolan sartzen

Gizon bat ikusita  
ikastolan sartzen  
orduan erabaki  
atzetik jarraitzen

Pasillotik aurrera  
hurreratu zuten  
gizona ikusita  
ikaratu zuten

Ikastolara sartu  
patioan ikusiz  
"hilko zaituztet"eta  
odolez idatziz

Ikaratuta zeuden  
korrika handik at  
ikusit zuten laban  
itzala handi bat

Gela baten barruan  
barrikada egin  
harrituta bagaude  
ta atera ezin

Haurrak ikaratuta  
eskola barruan  
gurasoak esaten  
zer gertatuko zan

Haiek abisatzeko  
kodigo morsean  
hori egiteko argiak  
itzal ta piztuan

Umeak beldurtuta  
ez jakin zer egin  
amak etorri ziren  
eskopetarekin

Barrikada egin ta  
ondo pasa dugu  
hamarretan etxera  
Barrikada\_eta gu

Maitetxok eskopeta  
hartu egin zuen  
haurrak salbatu eta  
pozik bizi ziren



**Asa ikastola – Lapuebla de Labarka**  
6. maila

**EUSKARA**  
**DOINUA: ORIOKO BALEA**

**KORRIKA**  
Apurtu du hanka bat  
Ai gizajo Unai!  
gaude oso tristeak  
baina joan da jai  
etorri da kaletik  
korrikara joan nahi  
martxoa da onena  
apirila\_ere bai

**ARABA EUSKARAZ**  
Ekainaren erdian  
ospatzen da berri  
festa handi ta polit  
ardoa\_eta gorri  
espero dugu ondo  
pasatzea sarri  
Lapueblan izango da  
mesedez etorri

**ABENDUAK 3**  
Aurten Oionen dugu  
ai tokatzen bada  
ondo pasatzen dugu  
euskara egira  
neguan delako ba  
hotz izugarri da  
abendua 3ak  
supertxupi dira

**OLENZERO**  
Abendua denean  
gu ikusten hasi  
etxeko telebistan  
Olenzero etzi  
jostailu mordo pila  
nik badut merezi  
gure etxean sartu  
ta\_opariak utzi

**NAFARROA OINEZ**  
Urtero urriari  
agur esan pozez  
jende pila dago ta  
Euskara! esanez  
zahar eta gazteak  
etorrita kotxez  
horregatik deitzen da  
Nafarroan Oinez

**KILOMETROAK**  
Gipuzkoako jaiak  
dira gaur Tolosan  
Kilometroak dira  
politak benetan  
txorizozko bokatak  
ta ardoa edan  
urriaren 20an  
hoberenak izan

**KULTUR ASTEA**  
Azalduko dizuet  
zuentzat poliki  
dantza eta jolasten  
ibili gu txiki  
azkenengo egunan  
pintxo eta jaki  
gure kultur astea  
horrela da beti



**San Bizente ikastola – Oion**  
5. maila

**HIRU TXERRITXOAK**  
**DOINUA: AI ZAPOTXIN**

Mendi altu batean  
hiru txerri daude  
jatorrak ta alaiak  
jaten dute pure

Otsoak jan nahi zuen  
gauean joan zen  
sabela hutsik bazen  
otsoa gose zen

Etxea bota zuen  
eta txerritxoak  
Adreiluzko etxera  
mugituz bi hankak

Nagusiak zirenez  
etxetik joan ziren  
bere amak esanez  
otsoa gose zen

Lastozko etxerantza  
txerria beldurrez  
Etxera hurbiltzean  
bota putz eginez

Otsoa tximinitik  
sartzen saiatzen da  
buztana erretzen du  
joaten da hara

Txerrikume bakoitzak  
dena ikusi beltz  
gazteenak lastoaz  
ertainak egurrez

Ta txerri ertaintxoak  
korrika\_atera zen  
otsoak putz egin du  
dena bota zuen

Hiru txerrikumeak  
abiatu ziren  
anaiaren etxera  
ta pozik bizitzen

Etxea egurrez du  
zaharrenak segidan  
adreiluzkoa dauka  
onena moduan

Hor bertan babesa du  
hori uste zuen  
putz egin otsoak ta  
etxea botatzen

Azkenean otsoa  
erretiratu zen  
orduan hiru txerri  
ondo bizi ziren



**San Bizente ikastola – Oion**  
6. maila

**EUSKARA**  
**DOINUA: ORIOKO BALEA**

**KORRIKA**  
Nik txiki txikitatik  
euskaraz badakit  
euskara gustatzen zait  
niri betidanik  
korrika Euskal Herritik  
ez dakit nik noiztik  
korrika egiten dut  
euskararengatik

**ARABA EUSKARAZ**  
Araba Euskaraz da  
euskara egiteko  
oso zorionsua  
festa asmatzeko  
Kalera ateratzeko  
aukera izateko  
Euskal Herriko festa  
euskara ospatzeko

**ARGITXOREN**  
**URTEBETETZEA**  
Abenduak hiruko  
urtebetetzean  
berak gustuko dauka  
jolastu parkean  
denek ospatzen dute  
bere etxetxoan  
Argitxo pozik dago  
jaia ospatzean

**EUSKARAZ BIZI NAHI DUT**  
Euskaraz lanean bai  
beti bihotzean  
etxera joatean  
beti jolasean  
ikastola ikasten  
jangelan jatean  
euskaraz bizi nahi dut  
eskolan lanean

**SAN BIZENTE IKASTOLA**  
Hemen gure ikastolan  
pila pila mola  
euskararen aldeko  
egin merendola  
ere egiten dugu  
euskara kontsola  
munduko hoberena  
gure ikastola

**EUSKARAREN**  
**NAZIOARTEKO EGUNA**  
Gaur ospatzen da eta  
nazioarteko\_orkesta  
gaurko erronka da eta  
euskararen hizketa  
oraintxe hasi dugu  
euskararen siesta  
euskara egunean  
ospatzen den festa



**Bastida Ikastola – Bastida**  
5. maila

KIRIKU ETA HIENA  
DOINUA: AIZ ZAPOTXIN!

AI KIRIKU  
ZE TXIKI ZAREN ZU  
OSO AZKARRA ETA  
JATORRA DA

Kiriku herri batean  
bizi da pentsatzen  
ta bere lagunekin  
dago gauzak saltzen

Baratzean jolasten  
barazkiak lantzen  
Kirikuren tribua  
guztiok parte\_hartzen

Ubideak sortuta  
baratzean ura  
herrian ez kezarik  
zelako pasada

Baina gau motz batean  
hiena etorri zen  
eta dena suntsitu  
gosea zetorren

Jendea triste dago  
hau ez dugu txantxa  
janaria landatzen  
berriro baratza

Ta hienak apurtu du  
egindako lana  
dena izorratu du  
a zelako pena

Hesia konponduta  
hiena bueltatu da  
Kiriku ikusita  
korrika\_hasi dira

Korrika joatean  
tranpak egiten ta  
Kirikuk hienari  
tranpa bat jarrita

Zuhaitz batera\_iritzi  
ta Kiriku igo  
eurlantza bat zegoen  
salbatuta nago!

Kirikuk bota zuen  
hienari eurlantza  
(e)ta hies egin zuen  
eta gero dantza

Kirikuk erleei  
hostoekin egin  
erlauntza berri bat  
ta eztiarekin

Herrirako ezta  
Kirukuk darama  
bareatzean topatzen  
kattagorri bana

Hiena\_hau ehizatu nahi  
zuela jabetu  
Kiriku azkarra da  
ezin engainatu





**Bastida Ikastola – Bastida**  
6. maila

DOINUA: IZKIN HONTATIK

NEGUA

Olentzero etortzen da beti  
neguan pozgarriena  
gure opariak irekitzen  
bera da gure laguna  
elurra zerutik beti jausten  
nahiko polita eszena  
elurrarekin ondo pasatzen  
urtarorik hoberana

UDABERRIA

Udaberriko hilabeteak  
martxoa apirila ta  
maiatza eta ekaina dira  
txoriak beti kantaka  
eta umeak poz-pozik dabiltz  
zelaia beti polita  
loreak distiratsuak eta  
zuhaitzak lorez beteta

UDA

Gu etxerako lanak egiten  
aspertu egiten gara  
andereñoak barre egiten  
etxerako lanak dira  
ekaina beti dago gurekin  
eta guztiok begira  
denak poz-pozik zergatik eta  
ikastola bukatzen da

UDAZKENA

Ama begira udazkena da  
hostoak jausi buruan  
mendian pilatzen dira eta  
jolasteko daude eran  
umeak irribarre batekin  
ta poz-pozik hostoetan  
eta azkenean joaten da  
sartuz berriro neguan

URTEA

Hasteko lehen hilabetea  
urtarrila da \_hasiera  
ta jarraian otsaila \_etorri  
hurrengoa martxoa \_hara  
hamabi hilabete ditu urteak  
zenbatu nahi baduzu ba  
urtearen zehar lau urtaro  
neguarekin hasten da



**Gobea Herri Eskola – Gobea**  
5 eta 6. maila

**GABONETAKO IPUINA**

1.

Gabonetan jostailu  
Baita ere liburu  
Ipuina kontatzea  
Da gure helburu  
Guk bertsoak hortako  
Asmatu ditugu  
Panpin baten istoria  
kontatuko dugu

2.

Beti gaude jolasten  
da nire laguna  
Mikelek pentsatzen du  
naizela kutuna  
naiz eta zaharra izan  
ta pixkat iluna  
jolasean gabiltza  
gau eta eguna

3.

Gabonak hasi dira  
ze zoragarria  
mikelek idatzi zuen  
gutun bat berria  
olentzero irakurri  
miklein orria  
papin berria nahi zuen  
hori oparia

4.

Panpina gogoratzen  
hori bai atsegin  
lehen jolastu biok  
baina orain ezin  
jolastu, garbitu ta  
lehortu pintzekin  
zenbat momentu pasa  
zuten elkarrekin

5.

Ondo pasatzen zuten  
batera jolasten  
baina mikelek panpin  
berria nahi zuen  
irrikatan zegoen  
Gabonetan aurren  
panpin berria lortzeko  
eguna iritsi zen

6.

Panpin berria lortu  
eta bai ederto  
lehenengo aurkeztu  
lagun egiteko  
hori egin zuen denak  
ondo egoteko  
elkarrekin jolasten  
askozaz hobeto



**Unamunzaga Eskola – Erribera Beitia**  
6. maila

**TXOKOLATEZKO ETXEA**

1.

Dirua ez zutela  
Familia pobrea  
Janariaren bila  
Mendira joatea  
Harri zuriak bota  
Zituzten ordea  
Eta aurkitu zuten  
Buelto bidea

2.

Amaordea zegoen  
Berean pentsatzen  
Berriz ere mendira  
Guztiak joan ziren  
Ogi apurrak botaz  
Buelto nahi zuten  
Baina txoriek denak  
Jan egin zituzten.

3.

Ibili eta ibili  
Aurkitu etxea  
Tximinitik atera  
Txokolate kea  
Gosez amorratuta  
Ona da jatea  
Sorgin itsusi batek  
Ireki atea

4.

Sartzen dira etxean  
Haurrak engainatzen  
Sorginak utzi zuen  
Han Hansel loditzen  
Ikusteko loditzen  
Hezurra erakusten  
Eta Grettel gaixoa  
Etxea Garbitzen

5.

Gretel piztu labea  
Hansel nik jateko  
bultzatu zuen zorgina  
labean erretzeko  
giltzak hartu zizkion  
Hansel askatzeko  
dirua hartu zuten  
etxera joateko

6.

Etxetik joan ziren  
ahate batean  
udaberria zenez  
zorion bidean  
berehalaxe zeuden  
etxeko atean  
asko alaitu ziren  
aita ikustean



**Jose Migel Barandiaran ikastetxea – Langraitz**  
6.A

**JON ZIKINEN IPUINA**

Jon zikinen ipuina  
Kontatzen duena  
Ere ume txikia  
Ematen dit pena  
Aizu etorri hona  
Mutil zikinena  
Mukiak ere ahoan  
Sartzen dituen  
  
Maitagarriak dio:  
"joan zaitez kalera!"  
Ere zuk nahi baduzu  
Bazoaz parkera  
Bueltatu nahi baduzu  
Ez duzu sarrera  
Zure anaiarekin  
Hantxe jolastera!

Kaixo katagorria  
Ni naiz zikinena  
Nire anaia zara?  
Galdera zuzena  
Ez naiz zure anaia  
Ez eman zuk pena  
Ez al duzu ikusten?  
Ni naiz ederrena

Kaixo zu zara nire  
Anai marabila  
Ni ez naiz zure anaia  
Ni txori abila  
Zikin zikina zara  
Kanpora mutila!  
Ba ni banoa nire  
Anaiaren bila

Kaixo zer moduz zaude  
Katu atsegina  
Ez nago ondo daukat  
Sudurreko mina  
Begiratu ispilura  
Ez zara berdina  
Ni garbi- garbia naiz  
Zu zikin Zikina

Kaixo ni naiz Jon zikin  
Nire ama ez dago alai  
Txerriak esan zion  
Ongi etorri anai  
Orain esan duzuna  
Ez dago oso guai  
Nik ez dut zuk bezala  
Txerria izan nahi

Txerriak esan dio  
Badela zikina  
Bueltatzean etxera  
Ama da sorgina  
Gure protagonista  
Ia ez da berdina  
Jon zikinen itxura  
Oso pinpirina



**Jose Migel Barandiaran ikastetxea – Langraitz**  
6.A

### DORTOKA ETA ERBIA

1.

Dortoka ikusita  
Ezin disimula  
Oso harroa izan zen  
Jan zuen tipula  
Horrelaxe hasi zen  
Gure pelikula  
Erbiak harrotuta  
Egin zion burla

2.

Dortoka han zegoen  
Oskolean gordeta  
Erbia begirutzen  
Hor bertan barreka  
Dortokak oso haserre  
Eman zuen buelta  
Horrela hasi zuten  
Biek lasterketa

3.

Erbiak esaten du  
Dortoka motela  
Dortoka mantso- mantso  
Harri bat bezela  
Burla egiten zion  
Horrela, horrela  
Dortokak esaten du  
Tontoa ba dela

4.

Dortoka motel-motel  
Erbia aspertzen  
Siesta bat botatzen  
Pentsatzen hasi zen  
Ta erbiak esan zuen  
"jarriko naiz hemen"  
Ta azkenean erbia  
Lokartu egin zen

5.

Dortoka mantso- mantso  
Joaten ari zen  
Bitartean erbia  
Siesta bat egiten  
Honek pentsatu zuen  
"Ederto nago hemen"  
Azkenean dortokak  
Irabazi zuen

6.

Dordoka oso poliki  
Ta erbia arin  
Dortokak pentsatzen du  
"ze zaila den, jolin"  
Hitz-egin eta hitz-egin  
Erbia atsegin  
Eta ahal bada inori  
Burlarik ez egin"

Eskualdeko bertso-eskolak  
2013-2014 ikasturtea



ERRIOXAKO TXANDRIO BERTSO-ESKOLA  
Oiongo IKA euskaltegia  
Diputazioa 32  
31016 OION  
Tel: 945 010505 (Arabako Bertsozale Elkartea)



AMAIA ZENTROA  
Pérez Galdós z/g  
01002 GASTEIZ  
Tel: 945010505 fax: 945288275  
Mug: 688695875 - 688616531  
e-posta: araba@bertsozale.com